

**KORONABIRUSAREN HEDAPENA SAIHESTEKO,  
HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUAN HARTUTAKO NEURRIEI  
BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA**

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen; eta zenbait neurri ezarri zituen herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko, gaixotasunaren hedapena saihesteko eta osasun sistema publikoa indartzeko.

Era berean, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak etxeko hondakinen kudeaketari eta COVID-ari buruzko jarraibide bat idatzi zuen.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, eta Eusko Jaurlaritzaren gomendioei jarraituz, Urola Kostako Udal Elkarteak honako NEURRI hauek hartu ditu:

**Irekita errefusaren eta hondakin organikoen edukiontzia**

Herritarren osasuna eta segurtasuna zaintzeko, Urola Kostako Udal Elkarteak erabaki du **errefusaren eta hondakin organikoen edukiontzia (gris eta marroi kolorekoak) irekita mantentzea.**

Era berean, herritarren segurtasuna zaintzeko, **derrigor eskuz ireki beharreko edukiontzi guztiak kendu egingo dira.** Horregatik, abisu berririk jaso arte, **kendu egingo dira ondorengo edukiontzi gunak:** Menditxo (Getaria), Aitzperro (Orio), Lusarbe (Orio), Arritokieta (Zumaia) eta Jadarre (Zumaia).

Herritarrei eskatzen zaie euren etxebizitzetatik gertuen dituzten beste edukiontzi gunak erabili ditzatela.

**Bertan behera etxeko hondakin handien bilketa zerbitzua**



Bihartik aurrera (martxoak 18), eta bestelako abisurik jaso arte, **bertan behera geratzen da etxeko hondakin handien bilketa zerbitzua.**

Deia luzatzen zaie herritarrei, hondakin handiak etxean eduki, eta kalera atera ez ditzaten.

### **Garbiguneak**

**Eskualdeko 3 garbiguneak zabalik mantenduko dira, baina bihartik aurrera (martxoak 18), eta bestelako abisurik jaso arte, langile profesional eta udal zerbitzuei bakarrik emango zaie zerbitzua.**

Horrenbestez, zerbitzua beharrezkoa den kasuetan baino ez erabiltzeko deia luzatzen zaie herritar guztiei. **Debekatuta dago** Garbigune kanpoaldeetan edozein motatako hondakinak uztea.

### **OHAR GARRANTZITSUA**

**Debekatuta dago COVID-19arekin gaixotutako herritarren hondakinak frakzioak bereizita biltzeko edukiontzietan (organikoa, ontziak, papera, beira, arropa eta ehunkiak....) uztea.**

Hala, COVID-19arekin gaixotutako herritarrak, edota haren zaintzaileek erabilitako eskularruak, musuzapiak, maskarak etab., poltsa itxietan bilduta aterako dira. **Poltsa horiek, errefusarentzako edukiontzietara botako dira: erabat debekatuta dago** frakzioak bereizita biltzeko edukiontzietan (organikoa, ontziak, papera, beira, arropa eta ehunkiak) edota inguruetan uztea.